

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Cristóbal Balenciagari
buruzko Nazioarteko I. Biltzarra

Batzorde zientifikoa

Batzorde zientifikoa

MIREN ARZALLUZ

Zuzendaria
Palais Galliera, Paris

ANA BALDA

Irakaslea
Komunikazio Fakultatea, Nafarroako Unibertsitatea

AMALIA DESCALZO

Irakaslea
ISEM Fashion Business School, Nafarroako Unibertsitatea

GASPARD DE MASSÉ

Artxiboaren arduraduna
Balenciaga, Paris

LESLEY E. MILLER

Altzari, Ehun eta Moda Saileko Kontserbadore Burua
Victoria and Albert Museum, London

CAROLINE EVANS

Irakaslea
Central Saint Martins, University of the Arts, London

ALEXANDRA PALMER

Modako Kontserbatzaile Burua
Royal Ontario Museum

VALERIE STEELE

Zuzendaria
Fashion Institute of Technology Museoa, New York

IGOR URIA

Bilduma Zuzendaria
Cristóbal Balenciaga Museoa, Getaria

PAOLO VOLONTÉ

Irakaslea
School of Design, Politécnico di Milano

Biografiak

MIREN ARZALLUZ Historian lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitatean; horrez gain, Politika Konparatuko masterra dauka London School of Economics zentroan, baita Artearen Historiako masterra ere, Jantziaren Historiaren espezialitatean, Courtauld Institute of Art zentroan. Bilduma eta erakusketa arduraduna izan zen Cristóbal Balenciaga Fundazioan, 2006tik 2013ra; tarte horretan, *La forja del Maestro (1895-1936)* (Nerea, 2010) liburua argitaratu zuen. 2013tik 2017ra bitartean, komisarioa izan da moda-erakusketa ugaritan, zenbait museorekin lankidetzan, besteak beste: Palais Galliera, Parisko Musée de l'histoire de l'immigration, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Anberesko MoMu. 2018ko urtarriletik Palais Galliera museoaren zuzendaria da.

ANA BALDA (Ekonomia eta Empresa Zientzien lizentziaduna eta Komunikazio Zientzien doktorea) irakasle elkartua da Nafarroako Unibertsitatean; bertan, Modaren Historia eta Modako Ilustrazioa eta Argazkilaritza irakasten ditu, Komunikazio eta Modako Nazioarteko Programan. *Cristóbal Balenciaga: una política de comunicación frente al avance del prêt-à-porter* (2013) tesiaren egilea da, eta jostunaren figurari eta lanari buruz ikertzen jarraitzen du. Zenbait artikulua idatzi ditu aldizkari espezializatuetan, eta *Ikatza eta belusa: Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak jantzi herrikoari* erakusketaren komisarioa izan da.

AMALIA DESCALZO doktorea da Artearen Historian Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, baita Modaren Historiako irakaslea ere, Nafarroako Unibertsitateko ISEM Fashion Business School zentzoko master ikastaroetan. Jantziaren Museoa lan egin du, abiaratze-prozesuan eta Batzorde Zientifikoaren kide

gisa. Arduradun zientifikoa izan da Cristóbal Balenciaga Museoaren sorreran. Bere argitalpen eta ikerketek aztergai dituzte, besteak beste, soinekoa eta moda Espainia modernoan. Argitalpeni dagokionez, nabarmentzekoak dira *Vestir a la Española. Prestigio y Vigencia del atuendo español en las Cortes Europeas (siglos XVI y XVII)* nazioarteko biltzarreko aktak.

GASPARD DE MASSÉ Balenciagak Parisen duen etxeko artxiboen arduraduna da 2014tik. Joskintza eta jantzigintza ikasi ondoren, zenbait erakundetan egin du lan, besteak beste, Garnier operan, Châtelet antzokian eta Philippe Decouflé konpainian, bai eta telebistan ere. Gaur egun, Artearen Historia ikasten jarraitzen du, Panthéon-Sorbonne Unibertsitatean. Balenciagak Parisen duen etxeko artxiboen arduraduna den aldetik, etxe horren ondarea balioztatzen eta kontserbatzen lagundu du, hainbat pieza eskuratuz eta zaharberritze- eta digitalizazio-lanak eginez. Horrez gainera, ondarea zabaltzen ere lagundu du, nazioarteko erakusketak egiteko maileguak kudeatuz. 2017an, komisariokide gisa jardun zuen *Balenciaga and Black* izeneko erakusketa Forth Wortheko (Texas) Kimbell Art Museumera eraman zenean, eta aipatutako erakusketaren katalogoan argitaratutako artikulua idatzi du (Paris Hiriko erakusketen katalogorik onenaren saria eman zitzaion katalogo horri).

LESLEY ELLIS MILLER kontserbatzaile burua da 2005etik V&A museoko Ehunen eta Modaren Sailean, baita Soinekoaren eta Ehunaren Historiaren katedraduna ere, Glasgowko Unibertsitatean. Bere ikerketa-esparru nagusia hau da: soinekoaren eta ehunaren negozioa eta diseinua Espainian eta Frantzian, Errenazimentu osteko garaian. Lan ugari idatzi

ditu Lyongo XVIII. mendeko zetaren industriari buruz. Besteak beste, *Selling Silks. A Merchant's Sample Book 1764* (V&A, 2014) eta *Balenciaga: Shaping Fashion* (V&A, 2017) –Balenciagari buruz idatzitako monografia arrakastatsuen jarraipena– liburuak idatzi ditu.

CAROLINE EVANS Modaren Historia eta Teoriaren irakaslea da Central Saint Martinsen-University of the Arts, Londres. Bere argitalpenen artean hauek nabarmentzen dira: *Fashion at the Edge* (2003), *The Mechanical Smile* (2013), *Il Tempo della Moda* (2019) eta *Time in Fashion* (2020). Irakasle bisitaria izan da mundu osoko hainbat diseinu-eskolatan, bai eta hainbat erakusketaren komisarioa ere museo ospetsuetan, esaterako, V&A, Londresko Museoa edo Palais Galliera: Musée de la Mode de la Ville de Paris. Gaur egun hiru ikerketa-ildo lantzen ari da: keinuaren ideia modan, modaren historiaren begirada arkeologiko-mediatikoa zinemaren bidez, eta gorputzaren teknologiaren eta patroigintzaren arteko harremana.

ALEXANDRA PALMER doktorea kontserbatzaile burua da Royal Ontario Museumeko Ehunen eta Modaren Saileko Nora E. Vaughan bilduman; bertan, 44.000 piezaren ardura dauka. Hainbat moda-erakusketatan komisario izan da, eta alorrean erreferentziazkoak diren zenbait liburu idatzi ditu, adibidez: *Christian Dior: History and Modernity, 1947-1957* (ROM Press, 2018), *Dior: A New Look, A New Enterprise 1947-57* (V&A Publications, 2009) (2019an berriro editatutakoa eta 2010eko edizioan Millia Davenport saria irabazitakoa), eta *Couture & Commerce: The Transatlantic Fashion Trade in the 1950s* (2001); azken argitalpen horrek Clio Award for Ontario History saria lortu zuen. Editore gisa, lan hauek nabarmentzen dira: *The Modern Age: The Cultural History of Fashion* (2016), *Old Clothes, New Looks: Second Hand Fashion* (2005), eta *Fashion: A Canadian Perspective* (2004).

VALERIE STEELE (PhD, Yale University) zuzendaria eta kontserbatzaile burua da Museum at the Fashion Institute of Technology museoan; bertan, 20 erakusketatan baino gehiagotan izan da komisarioa 1997. urtetik. Gainera, *Fashion Theory: The Journal of Dress, Body & Culture* aldizkariaren editore burua da; pareen sistemaren bidezko berrikuspina ezarri duen moda-ikerketako lehen aldizkaria da. Idazle eta editore jardun du 25 moda-liburutan baino gehiagotan, adibidez: *Paris Fashion, The Corset, Gothic: Dark Glamour, Japan Fashion Now, Daphne Guinness, Pink* eta *Fashion Designers A-Z: The Collection of the Museum at FIT*.

IGOR URIA Arte Ederretan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Kontserbazioaren eta Zaharberritzearen espezialitatean. Horrez gain, espezializazio ikasketak egin ditu Deustuko eta Alcalá de Henaresko unibertsitateetan. Curating Fashion and Dress ikasketak egin ditu Londresko V&A museoko International Training Course programan. Gaur egun, Cristóbal Balenciaga Museoaren Bildumen zuzendaria da; kargu hori 2014ko maiatzetik betetzen du, eta, horren aurretik, 2004. urtetik, Kontserbazio eta Erregistro Saileko burua izan zen erakunde berean. Komisarioa izan da zenbait erakusketatan, besteak beste, gaur egun ikusgai dagoen *Moda eta Ondarea, Cristóbal* erakusketan.

PAOLO VOLONTÉ doktorea da Soziologian (Milan, 2003) eta Filosofian (Freiburg im Breisgau, 1997), baita irakasle elkartua ere, Milango Politeknikoko Diseinu Eskolan, Kultur Prozesuen Soziologia irakasgaiaren. Editore-kidea da International Journal of Fashion Studies aldizkari espezializatuan, baita META – Social Sciences and Humanities for Science and Technology sarearen koordinatzailea ere. Moda, diseinua eta ezagutzaren soziologia dira bere ikerketa-esparru nagusiak. Gaur egun, *Fat Fashion* (Bloomsbury) idazten amaitzen ari da.

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
congress@fbalenciaga.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com

Patronoak



Kolaboratzailea

